

AISIALDIKO BEGIRALE IKASTARORAKO DIRULAGUNTZEN DEIALDIA

2025 URTEA

Aranguren Ibarreko Udalak, 2024ko azaroaren 28ko Nafarroako Aldizkari Ofizialetako 242. zenbakian argitaraturiko Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza eta 2025-2027 urteetarako Arangurengo Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoari jarraiki, Aranguren Ibarreko Gazteria arlotik antolatutako eta 2025eko urtarrilean hasitako URTXINTXA Aisia eta Astialdiko Begirale ikastaroa egindako erroldatutako gazteei dirulaguntza eskainiko die.

OINARRIAK

1. XEDEA

1.1. Deialdi honek arautzen dituen dirulaguntzen xedea Aisia eta Astialdiko Begirale ikastaroan matrikulatzeak sortzen dituen gastuak hein batean finantzatzea da. Laguntza hauek 1 339 2260900 “GAZTERIA JARDUERAK” aurrekontuko sailaren kargura ordainduko dira. Helburu honetara 2.000€-ko gehieneko kopurua bideratuko da.

1.2. Deialdi honetatik kanpo geratzen dira:

- a. URTXINTXA Astialdiko Eskolarekin 2025eko urtarrilean hasitako Aisialdiko eta Astialdiko Begirale ikastaroa egin duten erroldatu gabeko pertsonak.
- b. Erroldatuak eta erroldatu gabeak, Aisia eta Astialdiko Begirale ikastaroa beste data batzuetan egin dutenak, beste enpresa batekin edo beste entitate batetik antolatua.

2. BALDINTZAK

2.1. Aisia eta Astialdiko Begirale ikastarorako laguntza ondoko baldintzak betetzen dituztenek eskatu ahal izango dute:

- a. Aranguren Ibarrean erroldatua egotea ikastaroan izena emateko unean.
- b. Ikastaroa burutzea URTXINTXA Astialdi Eskolaren araudiaren arabera.

3. DIRUZ LAGUNDU DAITEZKEEN GASTUAK

- 3.1. Ikastaroaren matrikularekin zerikusia duten gastuak diruz lagunduko dira.
- 3.2. Pertsona bakoitzeko matrikula bakarra diruz lagunduko da.

4. ESKAERAK AURKEZTEKO LEKU ETA EPEA

4.1. Eskaerak ikastaroa amaitu ondoren edo 2025. urtea amaitu baino lehen aurkeztuko dira, eta konpromisoa hartuko da ikastaroa amaitu ondoren titulua egoitza elektronikoa edo Udal Erregistroan entregatzeko, deialdiarekin batera doan eredu normalizatuari egokitu beharko zaion eskabide sinatuaren bidez. Eskabidearekin batera, deialdi honetako 5. puntuan eskatutako agiriak eta informazioa aurkeztu beharko dira.

4.2. Eskaerak aurkezteko epea 2025 urtean amaituko da, eta ezingo da luzatu.

5. ESKAEREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK ETA INFORMAZIOA

5.1. Eskabideekin batera, honako agiri hauek aurkeztu beharko dira:

- a. Eskatzailearen NAN agiriaren fotokopia.
- b. Ikastaroa egin izanaren ziurtagiria, URTXINTXAk egina, edo ikastaroa Astialdi Eskolak adierazitako epeetan amaitzeko konpromisoaren adierazpena.
- c. Matrikularen ordainagiria, kuotaren %100 ordainduta dagoela adierazten duena.
- d. Laguntzaren zenbatekoa sartzeko bankuko libretaren lehen orriaren fotokopia. Eskatzailea kontuaren titularra ez bada, titularraren NANaren fotokopia aurkeztu beharko du.
- e. Posta elektronikoko helbidea, dagokion jakinarazpen elektronikoa egiteko.

5.2. Udalak dokumentazio osagarria eskatu ahal izango du, eskaerak behar bezala ebaluatzeko eta oinarri hauetan jasotako baldintzak betetzen direla kontrolatzeko.

6. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

6.1. Ekatzaille bakoitzak gehienez 100€ko laguntza eskuratuko du.

6.2. Laguntzen zenbateko osoak udal aurrekontuetan deialdirako erreserbatutako diru-izendapena gainditzen badu, hainbanaketa egingen da ezarritako baldintzak betetzen dituzten deialdiaren onuradunen artean.

7. ESKABIDEAK AZTERTU ETA EBAZTEA

7.1. Gazteria Alorrak baloratuko ditu aurkeztu diren eskaerak, eta ofizioz behar adina jarduera egingen ditu ebazpen proposamena egiteko behar diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko.

7.2. Dirulaguntzak Tokiko Gobernu Batzarraren erabakiaren bidez emanen dira.

7.3. Deialdiaren ebazpena jakinarazpen elektronikoaren bidez jakinaraziko zaie interesdunei.

7.4. Udalarekin zerga zorrak dituztenei beka ukatuko die Udalak.

7.5. Ebazpenaren aurka, administrazio-bidea agortu ahal izango baitute, errekurso hauetariko bat aurkez daiteke, hautara:

a. ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI-ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioko organo eskudunari zuzendua, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

b. GORA JOTZEKO ERREKURTSOA, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

c. BERRAZTERTZEKO ERREKURTSOAK, egintzaren organo egileari zuzenduta, hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta biharamunetik hasita.

8. DATU PERTSONALEN TRATAMENDUA

Tratamenduaren arduradunak: Aranguren Ibarreko Udala

Xedea: Aisia eta Astialdiko Begirale ikastarorako laguntzen eskabidea eta tramitazioa kudeatzea

Datuen komunikazioa: datuak bitartekoei jakinaraziko zaizkie indarrean dagoen araudian aurreikusitako kasuetan

Eskubideak: Datuak eskuratu, zuzendu eta ezabatzeko eskubidea duzu, baita beste eskubide batzuk ere, udal bulegoetara joz edo posta bidez dpd@aranguren.es.

Informazio gehigarria: Udal webguneko Pribatutasun Politika atalean (www.aranguren.es)

Mutiloa, 2025eko martxoa